

A2.2

Irakurri testua eta bete hutsuneak aukerarik egokiena erabilita

Etxean animaliak bai ala ez? Zergatik?

Animalia bat etxean edukitzeak alde on asko (**dira-dute- ditu**) gauza asko ematen dizkigutelako: konpainia, maitasuna, fideltasuna... Gainera, txakurren kasuan, adibidez, kanpora atera behar (**dauzkagu-dugu-ditugu**) egunero, eta, beraz, kalera atera eta ariketa fisikoa egiten (**dira-gara-dugu**). Gure komunikazioa ere indartzen dute, umorea hobetzen (**dute-gaituzte-digute**) eta, umeen kasuan, ardura hartzen ikasiko dute, animaliak egunero zaindu behar direlako; harremanak erraztuko zaizkie, eta, haiei esker, enpatikoagoak ere izango (**dute-gara-dira**). Urritasuna duen jendeari (down sindromea, autismoa...) gizartean integratzen laguntzen diote, maitatuta sentitzen dira.

Beraz, animalia bat etxean izateak onura asko ditu. Baina dena ona da, edo alde txarrak ere baditu? Alde onen eta txarren inguruan galdetu (**dugu-digu-diogu**) Ane Urtzelai albaitariari. Bera gasteiztarra da, albaitaritzan Zaragozan ikasi (**zuen-zen-zuten**), eta une honetan Irungo klinika batean ari da lanean. Gu bertara hurbildu (**gara-dugu-ginen**), eta berarekin hitz egin dugu kontu honen eta beste askoren inguruan.



ANIMALIA BAT ETXEAN EDUKITZEA

Anek lan egiten duen klinikan hainbat zerbitzu eskaintzen dituzte, batik bat txakurrentzat eta katuentzat: “Animaliak identifikatu, parasitoak hil, txertoak jarri, izaten dituzten gaitzak diagnostikatu eta tratatu, ebakuntzak (hauen artean, batez ere, esterilizazioak egiten dira), eutanasiak noizean behin, aholkuak ematen (**dute-ditu-dituzte**)... Horixe da gure lana”. Hortaz, animalia askoren joan-etorriak ikusten ditu egunero albaitari gasteiztarrak. Txakur edo katu bat etxean zaintzearen alde onak aipatu ditugu, eta Anek hauxe kontatu (**gaitu-diogu-digu**): “Animaliek konpainia handia egiten dute. Hori oso ona da jende askorentzat”. Baina, aldi berean, denbora eta lana ere eskatzen (**dute-du-dira**); ez da hain erraza: “Istripuak egoten dira, gaixotu egiten dira, eta, jabea kanpora joaten (**badira-badu- bada**), norbaitekin utzi beharko du animalia”. Horrez gain, dirua ere beharrezkoa izango du animalia bat eduki nahi duen pertsonak: janaria erosteko, albaitariarengana eramateko, katea edo lepokoa eskuratzeko...

ETXEKO ANIMALIA EGOKIA

Normalean katua eta txakurra etortzen (**zaizkigu-dira-gara**) burura etxerako animalia esaten dugunean, baina badira beste asko: txoria, dortoka, akuria, arrainak, sugea, iguana...

Edozein eduki dezakegu etxean? Zein da egokiena guretzat? Anek erantzuna argi du: “Edozein animalia eduki dezakegu etxean; baina bakoitzak bere berezitasunak ditu, eta, horren arabera, jakingo (**dezakegu-dugu-ditugu**) etxean eduki dezakegun ala ez”. Familia bakoitzak bilatu behar du animalia egokia etxerako. Jabeak behar duena eman behar (**du-dio-zaio**) animaliarri eta bere izaera kontuan hartu behar du: “Oso izaera ezberdineko katuak eta txakurrak daude”.

TRANSKRIPZIOA

Etxean animaliarik bai?

Animalia bat etxean izateak onura asko ditu. Baina dena ona da, edo alde txarrak ere baditu? Alde onen eta txarren inguruan galdetu diogu Ane Urtzelai albaitariari.

Animalia bat etxean edukitzeak alde on asko ditu, gauza asko ematen dizkigutelako: konpainia, maitasuna, fideltasuna... Gainera, txakurren kasuan, adibidez, kanpora atera behar ditugu egunero, eta, beraz, kalera atera eta ariketa fisikoa egiten dugu. Gure komunikazioa ere indartzen dute, umorea hobetzen digute eta, umeen kasuan, ardura hartzen ikasiko dute, animaliak egunero zaindu behar direlako; harremanak erraztuko

zaizkie, eta, haiei esker, enpatikoagoak ere izango dira. Urritasuna duen jendeari (down sindromea, autismoa...) gizartean integratzen laguntzen diote, maitatuta sentitzen dira. Beraz, animalia bat etxean izateak onura asko ditu. Baina dena ona da, edo alde txarrak ere baditu? Alde onen eta txarren inguruan galdetu diogu Ane Urtzelai albaitariari. Bera gasteiztarra da, albaitaritzan Zaragozan ikasi zuen, eta une honetan Irungo klinika batean ari da lanean. Gu bertara hurbildu gara, eta berarekin hitz egin dugu kontu honen eta beste askoren inguruan

ANIMALIA BAT ETXEAN EDUKITZEA

Anek lan egiten duen klinikan hainbat zerbitzu eskaintzen dituzte, batik batik txakurrentzat eta katuentzat: "Animaliak identifikatu, parasitoak hil, txertoak jarri, izaten dituzten gaitzak diagnostikatu eta tratatu, ebakuntzak (hauen artean, batez ere, esterilizazioak egiten dira), eutanasiak noizean behin aholkuak ematen dituzte... Horixe da gure lana". Hortaz, animalia askoren joan-etorriak ikusten ditu egunero albaitari gasteiztarrek. Txakur edo katu bat etxean zaintzearen alde onak aipatu ditugu, eta Anek hauxe kontatu digu: "Animaliek konpainia handia egiten dute. Hori oso ona da jende askorentzat". Baina, aldi berean, denbora eta lana ere eskatzen dute; ez da hain erraza: "Istripuak egoten dira, gaixotu egiten dira, eta, jabea kanpora joaten bada, norbaitekin utzi beharko du animalia". Horrez gain, dirua ere beharrezkoa izango du animalia bat eduki nahi duen pertsonak: janaria erosteko, albaitariarengana eramateko, katea edo lepokoa eskuratzeko...

ETXEKO ANIMALIA EGOKIA

Normalean katua eta txakurra etortzen zaizkigu burura etxerako animalia esaten dugunean, baina badira beste asko: txoria, dortoka, akuria, arrainak, sugea, iguana...

Edozein eduki dezakegu etxean? Zein da egokiena guretzat? Anek erantzuna

argi du: "Edozein animalia eduki dezakegu etxean; baina bakoitzak bere berezitasunak ditu, eta, horren arabera, jakingo dugu etxean eduki dezakegun ala ez". Familia bakoitzak bilatu behar du animalia egokia etxerako. Jabeak behar duena eman behar dio animaliarari eta bere izaera kontuan hartu behar du: "Oso izaera ezberdineko katuak eta txakurrak daude".

Hala ere, bat aipatzekotan Anek garbi du: "Agian katua da errazena zaintzen; ez dugu kalera atera behar, txakur bat bezala, eta, horregatik, askorentzat erosoena da".

A2.2

Eta zuk?

Orain zure txanda da. Jarri taldean eta komentatu puntu hauek:

Eta zuk, badaukazu animaliarik etxean? Zein?

Zure ustez, zein dira animalia bat etxean edukitzearen alde onak? Eta txarrak?

Zein da zure iritziz, animaliarik egokiena etxean edukitzeko?

Eta noiz edukiko ez duzuen?

Eta arraroena?...